



## HAUSPOA proiektu pilotoa Elorrioko Institutuaren proposamena 2013-2014.ikasturtea

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK** maiatzaren 22ko ebazpenaren bitartez, Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe publikoei dei egiten zien ikastetxe publikoen barne-antolamendua berriztatzekeo proiektu piloto batean parte hartzeko (HAUSPOA).

Esperientzi honen helburua gaur egun indarrean dagoen esparrua malgutzea da ikastetxeetako hezkuntza-jarduerak eta eskola-denborak berriz antolatzea ahalbideratzeko, beti ere, eskola-arrakasta hobetzearen mesedetan.

Ebazpenean bertan adierazten dira lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Eskola-denboraren eredu berriak praktikan jarri eta ebaluatu.
- Ikastetxeen kalitatea hobetu (bikaintasuna), autonomía gehituz.
- Emaitzen hobekuntza sustatu.

Helburu hauetaz gain, Elorrioko Institutuak, proiektu honetan beste hauek ere ikusten ditu eta lantzea gustatuko litzaioke:

- Hezkuntza Komunitate osoari arreta gehiago eta era zehatzagoan eskaini, bereziki gehien behar duen ikasleriari (EKITATEA) eta baita gehiago eskatzen duen ikasleriari (BIKAINASUNA)
- Baliabide gehiago eskaini eta ditugun baliabideei etekin handiagoa atara. Eraginkortasuna bilatu arazo akademikoei eta pertsonalei beste modu bateko irteerak ematerakoan.
- Eskola orduz kanpo, lanerako bilgune gehiago eta arreta denbora gehiago eskaini hala nahi duen ikasleriari.
- Hezkuntza Komunitatearen partehartze aktiboagoa lortu bai prestakuntza saioak eskainiz gurasoentzat eta baita euren laguntza eskatuz eta gogo onez jasoz **HAUSPOA arratsaldeak** aurrera eramateko garaian.

- Ikastetxeak Hezkuntza Komunitateari eskaini diezaiokeen hornikuntzari etekin handiagoa atera, partehartzaileen esku utziz hainbat gune eta tresna euren **hezkuntza arrakasta** bideratzeko.
- Bizikidetzeta hobetu, arazo-guneak eta arazo-ordu batzuk desagertuz.
- Ikasleriaren autonomia gaitasuna landu, bere ikasketa prozesuaren jabe eta erantzule izateko aukera eskainiz.
- **HAUSPOA arratsaldean** kudeaketa partekatua bultzatu. Ikastetxeak baliabideak jartzen ditu eta ikasleen **hezkuntza arrakastan** gurasoen eta ikasleen partehartze aktiboa lortu.
- Ikasleriaren **hezkuntza arrakasta** lortzeko ikastetxearen eta gainontzeko gizarte/hezkuntza eragileen arteko harremana sendotu.

## 1. Proiektua landu eta aurkeztu

Ebazpenean adierazi legez, ikastetxearen zuzendariari dagokio esperientzia piloto honetan parte hartzeko proiektua lantzea eta eskaera egitea, eta esanari jarraiki, lanketa honetan emandako urratsak hauek izan dira:

- ✓ Elorrioko Institutuko klaustroa deitu eta HAUSPOA proiektua azaldu. Bilera hau 2013ko apirilaren 17an egin zen eta klaustrokideen erabateko oniritzia jaso zuen egitasmoak.
- ✓ Elorrioko Institutuko OOGa deitua izan zen 2013ko maiatzaren 21ean eta bertan ere aipatu proiektua azaldu zitzaizen kide guztiei. Ordezkaritza Organu Gorenaren erabateko iritzia ere jaso ostean azken urratsari ekin genion.
- ✓ Azken urratsa Elorrioko Irakaskuntza Publikoko Guraso Elkarteari HAUSPOA aurkeztea zen eta hala bazegokion euren onarpena jasotzea. Bertan bildutakoek – juntakideek – baiezkoa eman zioten proiektuan partehartzeari baina egokioagoa ikusi zuten euren baiezkoaz gain Guraso Elkarteko kide eta kide ez direnei GURASO ASANBLADARA deitzea eta bilera honetan elkartzen ziren guraso guztiei proiektua azaltzea eta bozkatzea proiektuan sartzeko eskaera egin ala ez.
- ✓ Eskaera honetan, aurrerago, ikusiko duzuen moduan, hiru aktak atxikitzen ditugu:
  - Elorrioko Institutuko Klaustroko akta
  - Elorrioko Eskola Kontseiluko akta
  - Guraso Elkarteko akta zeinetan GURASO ASANBLADAREN bozketaren emaitza ere agertzen den.

Ikus daitekenez, ebazpenaren, bere 5.artikuluan adierazten den moduan, hots, proiektua aurkezteko ezinbesteko eskakizunak betetzen ditugula uste dugu, hirurek onartu baitute esperimentazio-proiektu honen eskaera egitea.

## 2. Ikastetxearen proiektuaren egitura

Gure HAUSPOA proiektua Elorrioko Institutuak aurki onartuko duen HEZKUNTZA PROIEKTUAN isladatzen diren helburuekin erabat bat datorrelakoan gaude eta ezinbestean, gure partehartzea onartu ezker, bertan jarritakoak zuzen-zuzenean 2013-2014.ikasturteko IKASTURTEKO PLANEAN islada izango du.

Labur bada ere, gogora ekarri nahi dizuet gure HEZKUNTZA PROIEKTUAN nabarmentzen diren atal garrantzitsu batzuk:



### ELORRIOKO INSTITUTUAREN ZEREGINA

Elorrioko Institutuaren ZEREGINA, gure ikasleei, elkartasunean, berdintasunean, errespetuan, tolerantzian, arduran, autonomian, zentzu kritikoa eta partaidetzan oinarrituta heldutasuna lortzen laguntzea da. Ikasleak euren prestakuntzan eta eguneroko funtzionamenduan dituzten betebeharrak eta eskubideetan inplikatuak ditugu, ikasteko duten motibazioa landuz. Arreta bakoitzari bere beharrezkoen arabera emango diogu balore inklusiboak garatuz, euren gaitasunen lanketan oinarrituz akademikorik onena lortzeko eta etorkizunean ahalbideak bermatzeko. Honetarako gure giza baliabide eta bitarteko materialak erabiliko ditugu.

Eta hau badin bada, Elorrioko Hezkuntza Komunitateak MISIO moduan onartu duena, gure ikastetxea etorkizunari begira modu honetan irudikatzea gustatuko litzaiguke:

## ELORRIOKO INSTITUTUAREN BISIOA

Etorkizunari begira Elorrioko Institutua familientzat konfidantzazko ikastetxea izatea lortu nahi dugu, bere profesionaltasunagatik, irudi onagatik eta ideologiaz aparte guztiek eurena bezala ikusten dutelako, ondoko alorretan nabarmenduz:

- antolakuntza,
- kalitatezko hezkuntza
- barruko giro ona
- eta lan egiteko gaitasuna

Eskola Komunitate abegikorra, laguntzailea eta bizia sortu nahi dugu.

Guzti hau lortzeko zehaztuta dauzkagu ere HELBURUAK eta KONPROMISOAK. Hauek dira:

## IKASTETXEAREN HELBURUAK, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA PROGRAMAK

1.HELBURUA	2.HELBURUA	1. HELBURUA
Ikasle bakoitzaren izaera kontuan hartuta, beronen etorkizuna eraikitzen lagundu heziketa ona emanaz	Hezkuntza osoaren partehartzea eta elkarlana bultzatu	Etengabeko sistemak hobekuntza ezarri. Ikastetxearen Autonomia handiagoa bideratuko duten hobekuntza-planak bultzatu



2. HELBURUA	3. HELBURUA	4. HELBURUA
Langileen formazioa, konpromisoa eta lanerako ziurtasun baldintzak hobetu	Ikastetxeko kideen arteko Elkarbizitza kudeaketa hobetu	Herriko eta inguruko erakunde eta zerbitzuekin etengabeko harremana bultzatu

### IKASTETXEAREN KONPROMISOAK

HARRERA ESPARRUA	BIZIKIDETZA ESPARRUA	KOORDINAZIO ESPARRUA
<p>1. Elorrioko Institutuak gure ikastetxera datozen ikasle, irakasle eta guraso berrientzat HARRERA PLANGINTZA zehaztuta dauka.</p> <p>2. Irakasle berriei, ikastetxean sartu bezain pronto, eskura jarriko zaie/zaizkie, eman behar duten/dituzten irakasgaiak kontuan hartuta berauei dagozkien bai PROGRAMAZIOA eta baita MEMORIA ere.</p> <p>3. HARRERA PLANA idatzita dagoen heinean beronen baitan hartzen dituen dokumentu, agiri eta zerrenda guztiak dagokion egunerako prest izango ditugu.</p>	<p>4. ELKARBIZITZA PLANA URTEKO PLANean sartuko dugu.</p> <p>5. ELKARBIZITZA ikastetxearentzat oinarritzko helburuetariko bat izanda, Elkarbizitza Batzordea eta ikastetxeko estamentu ezberdinen partaidetza indartu eta bultzatuko dugu</p>	<p>6. Elorrioko eta Atxondoko Lehen Hezkuntzako ikastetxearekin elkarlanean jardungo dugu guraso eta umeei eskaini nahi diogun hezkuntza maila geroz eta hobe izan dadin.</p> <p>7. Elorrioko Institutuko lehen mailetakoko tutoreek Lehen Hezkuntzatik datozen ikasle berri izango dute. Honetarako ikasturte amaieran DBHko koordinatzaileak + Orientatzaileak, LHko irakasleekin bilera egingo dute.</p>



### PROGRAMAZIOEN ESPARRUA

8. Elorrioko Institutuko irakasgaien programazioak Lurralde Ordezkaritzak eskatu baino astebete lehenago prest egongo dira.

9. Ikasturte guztien amaieran, bateratutako ereduan, irakasle guztiok irakasgaiko memoria idatziko dugu programatutakoaren emaitzak eta datorren ikasturteari begira egin beharreko aldaketak proposatzeko.

10. Irakasgai bakoitzak bere ebaluaziorako kriterioak zehaztuta dauzka eta berauen berri ikasleei ez ezik hala eskatzen duten gurasoei ere emango zaie.

11. Behar bereziak – CEIak... - dituzten ikasleei banakako programazioak egingo zaizkie eta berauen jarraipena ikasturte osoan zehar luzatuko da. Honetarako HPBk dituzten ikasleei buruz erabakiak hartzeko Ptak eta Orientatzaileak astero ordu bat hartuko dute bilera egiteko. PT eta arloko irakasleen arteko koordinazioa ere burutuko dugu eta ikasturte amaieran berauen memoriak ere idatziko dira.

12. Salbuespenak salbuespen eta egoera normalean Elorrioko Institutuak programatutako %100a emango du.

### FAMILIEN ESPARRUA

13. Elorrioko Institutuko gurasoei ikastetxearen eta beronen antolaketaren berri ematen duen GURASOENTZAKO GIDA izeneko dokumentua emango zaie ikasturteko lehen bileran.

14. Ikasleen eta irakastaldeek etengabeko jarraipena egingo dugu ikasturtean zehar hiru aurrebaluazio egiteko aukera zabalduz eta gurasoekiko harremana, ebaluazio bakoitzean behin gutxienez ziurtatuko dugu. Guzti hau TUTORETZA PLANean zehazten da

15. Ikasleei zein gurasoei tutoretza orduetan eta baita Orientazio Zerbitzuaren eskutik, DBH barruko ibilbideen berri emango zaie eta baita DBH ondorengo ikasketak nolakoak eta non egin daitezkeen. Informazioa emateaz gain, aukerak egiteko prozesuak ere erakutsiko zaizkie.

Hauek dira, besteak beste, gure nahiak eta helburuak eta gure ustez HAUSPOA proiektuan parte hartzeak berauek hobeto lortzen lagun gaitzake.

### 3. HAUSPOA PROIEKTUA ELORRIKO INSTITUTUAN



Elorrioko Institutua LOGSE legearen sarreratik honentza DBHko ikastetxea da; DBHko ikasketak baino ematen ez dituen eta datuei erreparatuz honako hauek azpimarragarriak izan daitezkenak:

ADIERAZLEAK	2006-07		2007-08		2008-09		2009-10		2010-11		2011-12	
	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%
DBHn kurtsoz promozionatu	164	89%	174	96%	175	90%	165	91%	163	92%	177	93%
DBHko 4.mailan graduatua lortu	36	92%	37	92%	49	89%	43	93%	38	93%	37	93%
DBHko titulua 4 urteetan lortu dute	21	72%	30	73%	34	77%	40	89%	30	73%	32	65%
Jakintzagai guztiak gainditu dituztenak	121	74%	135	78%	119	68%	111	67%	122	75%	137	77%
Graduatu titulurik gabe aterata direnak	1	2%	1	2%	1	2%	3	6%	0	0%	5	12%
<b>IKASLE KOPURUA OROTARA</b>	184		182		195		182		177		191	

ADIERAZLEAK	2004-05		2005-06	
	Ikasle kopurua	%	Ikasle kopurua	%
DBHn kurtsoz promozionatu	130	81%	158	91%
DBHko 4.mailan graduatua lortu	36	77%	32	86%
Jakintzagai guztiak gainditu dituztenak	102	79%	112	71%
Graduatu titulurik gabe aterata direnak	2	4%	2	5%
<b>IKASLE KOPURUA OROTARA</b>	161		173	

Ikus daitezenez gure ikasleriaren kopurua, demografiaren esku egonda gehienbat, ezin dugu ukatu Elorrioko familiek geroz eta apustu argiagoa egiten ari direla Irakaskuntza Publikoaren alde eta erantzunkizun positibo honetan azpimarragarria da ere Elorrio LHI ikastetxea egiten ari den lana.

HAUSPOA proiektuaren antolaketa alorrean sartuta, modu honetan antolatzea gustatuko litzaiguke gure proiektua:

- Ikasleen irakastordutegia. 2013-2014. ikasturterako proposatzen ditugun aldaketak

Elorrioko Institutuak azken ikasturteetan, DBHko ikastetxeetan ohikoa den ordutegia izan du, hau da:

**2012-2013.ikasturtean ikasleen irakastordutegia**

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
08:30-09:30	1	1	1	1	1
08:30-09:20					
09:30-10:30	2	2	2	2	2
09:20-10:10					
10:30-11:00	JOLASTORDUA	JOLASTORDUA		JOLASTORDUA	
10:10-11:00			3		3
11:00-11:30			JOLASTORDUA		JOLASTORDUA
11:00-12:00	3	3	4	3	4
11:30-12:20					
12:00-13:00	4	4	5	4	5
12:20-13:10					
13:10-14:00			6		6
13:00-14:30	JANTOKIA	JANTOKIA		JANTOKIA	
14:30-15:30	5	5		5	
15:30-16:30	6	6		6	

**2013-2014.ikasturterako proposatzen duguna**

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
08.30-09:25	1. saioa	1. saioa	1. saioa	1. saioa	1. saioa
09:25-10:20	2.saioa	2.saioa	2.saioa	2.saioa	2.saioa
10:20-11:15	3.saioa	3.saioa	3.saioa	3.saioa	3.saioa
11:15-11:45	JOLASTORDUA	JOLASTORDUA	JOLASTORDUA	JOLASTORDUA	JOLASTORDUA
11:45-12:40	4.saioa	4.saioa	4.saioa	4.saioa	4.saioa
12:40-13:35	5.saioa	5.saioa	5.saioa	5.saioa	5.saioa
13:35-14:30	6.saioa	6.saioa	6.saioa	6.saioa	6.saioa

Ikus daitekenez proposatzen dugun irakastordutegiak honako zehaztasunak ditu:

- ✚ Asteko egun guztietan ordutegi bera jarraitzen dugu.
- ✚ Ez dugu sarrerako ordutegia aldatzen.
- ✚ Saioak 55 ´ minututakoak dira.
- ✚ Jolastordu bakarra egingo dugu 30´ minututakoa



- ✚ Asteko 30 orduak irakastordutegi berri honetan honela antolatzen ditugu:
  - Egunero 6 ordu, gorago jarritako ordutegi horretan eskainiko dira:
    - 6 saio 55´minututakoak = 330 minutu.
    - Jolastordua = 30 minutu
    - Guztira egunero = 360 minutu ( 6 ordu )
- ✚ DBH mailan eskaini behar diren gutxiengoak hauek dira: 175 eskola egun eta 1.050 irakastordu. Irakastordu berri honek, gure eginbeharrekoetan murrizketarik ez duela izango modu honetan argitzen dugu:
  - Elorrioko Institutuak onartu berri duen datorren ikasturterako egutegiak ikasleentzat 175 lan egun adierazten ditu.
  - 1.050 ordu, modu honetan betetzen ditugu:
    - 6 ordu/egunero x 175 eskola egun ikasleentzat = 1.050 ordu

EBAZPENEAN bestalde, 6.artikuluko a.2) atalean irakasteko ez den ordutegiaren proposamenaz mintzo da. HAUSPOA proiektuak Elorrioko Institutuan honako zutabeak izatea da gure helburua:

- Ikasleentzako arreta pertsonalizatua:
  - Errefortzu eta laguntza jardunak bai EKITATEA eta baita BIKAINTRASUNA lortu nahian.
  - Ikasleriari baimendutako eta zaindutako/lagundako ikasgelak eskaini.
  - Ikastetxeko Guraso Elkartearen eskutik edota ikastetxetik at leudekeen beste erakundeen eskutik jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatu eta eskaini.
- Gurasoentzako arreta pertsonalizatuagoa:
  - Gurasoekin elkartzeko guneak ere izango dira gure HAUSPOA arratsaldeak.
  - Nahiz eta orain arte ere egiten genuen, arratsaldeak izanik gurasoekin egoteko une aproposagoak, berauek hobeto aprobetxatzen saiatuko gara. Honek ez du kentzen goizetan ere eurekin elkartzea, eurentzat une egokiagoa baldin bada.
  - Honetarako PARTEKATUTAKO TUTORETZA proiektua indartuko dugu
  - PARTEKATUTAKO TUTORETZAREN garapenean haxe hartzen dugu kontuan:
    - 2010.urtean egindako hasierako hausnarketa atxikitzen dugu dokumentu honetan.

- Gurasoei bere seme/alabaren tutorea izango dena adierazteko erabili izan dugun eskutitza ere atxikituta duzue.
- Irakasleriaren koordinazioa. Atal honetan, hauxe da aurreikusten duguna.
  - Astearte arratsalde batzuk erabiliko ditugu honetarako:
    - Egiten ditugun ikasleriaren aurrebaluazio eta ebaluazio saioak modu pausatu eta sakonago batean egiteko.
    - Ikasgelako eta ikasmilako bilerak bultzatzeko. Ikasgelako eta ikasmilako irakasleen bilguneari garrantzi gehiago eman nahi diogu ikasleen ezagutzan eta modu honetara bere laguntzan herraminta gehiago izan ditzagun.
    - Premiarik balego eta izango dela aurreikusten dugu, MINTEGIAK berriro elkartzeko, asteroko bigarren ordua izateko alegia, gune egokia izan daiteke. Premia ikuspegi honetatik ikusten dugu: ikasleriari eskaini behar zaiona nolabait PROGRAMATU beharra dago eta honek mintegi bakoitzaren orain arteko funtzioa zabaltzea eta aberastea dakar.

HAUSPOA proiektuak ere Hezkuntza Komunitate osoa eta ikastetxearen zeregin integrala bere baitan hartzen duenez, helburuekin eta adierazleekin eta abarrekoekin sartu aurretik, egokia dela uste dugu irakastorduetatik kanpo geratzen diren zerbitzuak zelan antolatuko ditugun jakinaraztea.

Bai GARRAIOArekin eta baita JANTOKIKO arduradunarekin, sukaldariekin, jantokiko laguntzaileekin eta garbitzailearekin, guzti honetaz hitz eginda dago eta proiektua onartu ezker jarraituko genukeen ordutegia eurekin adostuta ere.

### **JANTOKI zerbitzua honela antolatuko dugu:**

- Ikasleek egunero 14:30etan amaitzen dituzte euren goizeko irakastorduak.
- Jantokira guztiak batera sartuko dira. Ordurako Lehen Hezkuntzako bazkaltiarrek bazkalduta daude, beraz, jantoki osoa guretzat dago.
- Bazkaltzeko ordutegia: 14:30-15:15 gutxi gora behera.
- Behin 15:00ak aldera, jantokiko laguntzaileek mahaiak garbitu eta aulkiak jasoko dituzte.
- Ordu honetatik aurrera garbitzailea sartuko da eta jantokia garbituko du.

- Sukaldariek 14:30etarako janaria prest izango dute eta amaitu ahala plater eta abarrekoak garbitzearik ekingo diote euren irteera ordutegia ere – 16:00 – errespetatzen delarik.
- Jantokiko laguntzaileen ordutegia, espero duguna, hauxe izan daiteke: 14:30etatik 16:00ak arte.

**GARRAIO zerbitzua honela antolatuko dugu:**

- Bazkaltiarrek bazkaltzea amaitzen dutenen aterako da. Irteera ordua: 15:15
- Goizeko ordutegia ez da aldatzen.
- 2013-2014.ikasturtean 3 autobus izango direlakoan gaude, bata handia eta beste biak txikiak.
- Autobus handiak Atxondoko ibilbidea egingo du eta txikiek ordea auzoetako ikasleak Institutura hurbilduko dituzte.

**ADIERAZLE OROKORRAK**

Ebazpenean agertutako hiru helburu nagusiei lotutako adierazle orokorrak ondoren zehazten direnak izan daitezke. Helburu zehatzagoak eta berauei jarritako adierazleak ostean datoz.

HELBURUA	ADIERAZLEA	TRESNA	KOPURUA
<b>Eskola-denbora eredu berriak praktikan jarri eta ebaluatu</b>	Hezkuntza Komunitatearen asebetetasuna neurtu eredu berri honekiko	Asebetetasun inkestak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoentzat</li> <li>• Ikasleentzat</li> <li>• Irakasleentzat</li> </ul> DAFO tresna aplikatu	Jasotako inkesten batzabestekoa 3,5 -4 bitartean izatea. Inkesta 1-5 bitartean antolatuko da.
<b>Ikastetxearen kalitatea hobetu – bikaintasuna – autonomia gehituz</b>	Hezkuntza Komunitatearen asebetetasuna neurtu. Jasotako arreta eta ikastetxeko kide izatearen atsegintasuna neurtu	Asebetetasun inkestak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gurasoentzat</li> <li>• Ikasleentzat</li> <li>• Irakasleentzat</li> </ul>	Jasotako inkesten batzabestekoa 3,5 -4 bitartean izatea. Inkesta 1-5 bitartean antolatuko da
<b>Emaitzen hobekuntza sustatu</b>	Proiektu honetako 7.orraldean agertzen direnak	Aurrebaluazioak, ebaluazioak eta ez-ohiko ebaluazioak	Proiektu honetan agertzen diren eskola-emaitzak %10ean hobetu

HELBURUAK – ADIERAZLEAK – EDUKIAK – JARDUERAK – BALIABIDEAK – PERTSONAK

HELBURUAK	JARDUERAK	ADIERAZLEAK	BALIABIDEAK	PERTSONAK	OHARRAK
<b>Ikasleentzako arreta pertsonalizatua indartu</b>	Errefortzu eta laguntza jarduerak antolatu EKITATEA eta BIKAINTRASUNA kontuan hartuta	HAUSPOA arratsalde bakoitzean errefortzu/hobekuntza saioak izatea. Betetze maila %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mintegiak</li> <li>Testuliburuak</li> <li>Eskola 2.0 ordenagailuak</li> <li>...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleria</li> <li>Pertsonalgo ez dozentea</li> <li>Guraso laguntzaileak</li> </ul>	
	Ikasleei baimendutako eta zaindutako/lagundutako ikasgelak eskaini	Ikasgelak ikasleen esku utzi. Irakasle bat ikasgela bakoitzean bermatu. Betetze maila %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>IKT 1 gela</li> <li>IKT 2 gela</li> <li>Biblioteca</li> <li>Teknologia/Plastika gela. Ikasgelaren bat...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleria</li> <li>Guraso laguntzaileak</li> </ul>	
	Ikasleei jarduera osagarriak eskaini HAUSPOA arratsaldeetan	Erakundeek eskaintzen dizkiguten ekintzetatik batzuk arratsalde hauetan eskaini. Beteze maila = eskaintako %25a arratsaldeetan ahalbideratu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erakundeek luzatutako eskaintzak.</li> <li>Geuk erakundeei eskatutakoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleria</li> <li>Proiektu desberdinetako irakasleak</li> <li>Ikastetxera datozen hizlariak</li> </ul>	
	Ikasleei Guraso Elkarreak edota beste erakunde batek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaini	Guraso Elkarreak diseinatutako eskaintza ikasleriari helarazi eta parte har dezaten animatu. Betetze maila = ikasleen %25ak gutxienez parte hartzea			

HELBURUAK	JARDUERAK	ADIERAZLEAK	BALIABIDEAK	PERTSONAK	OHARRAK
<b>Gurasoentzako arreta pertsonalizatua indartu</b>	Gurasoekin aurrez aurreko bilerak bultzatu eta indartu	Gurasoekin egindako bileren %50a aurrez aurrekoa izatea. Beteze maila = %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Telefono deia</li> <li>▪ Zita-orria</li> <li>▪ Ikastetxea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gurasoak</li> <li>▪ Tutoreak</li> <li>▪ Irakasleak</li> </ul>	
	Partekatutako tutoretza egitasmoan irakasle gehiago inplikatu	Egitasmo honetan parte hartuko duten irakasle kopurua %90a izatea. Beteze maila = %100a		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakasleak</li> <li>▪ Mailako tutoreak ez diren irakasleak</li> </ul>	
	Ikasturte hasieran gurasoei ahalegin honen berri eman eta familia bakoitzari bere seme/alabaren tutorea zein den jakinarazi.	Gurasoei euren seme/alabaren tutorea zein den jakinarazi, Beteze maila = %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasturte hasierako bilera</li> <li>▪ Gurasoentzat eskutitza</li> <li>▪ Irakasleontzat NORBANAKO TUTORETZA dokumentua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gurasoak</li> <li>▪ Irakasleak</li> <li>▪ Ikasketa Burua</li> <li>▪ Zuzendaria</li> <li>▪ Pertsonalgo ez dozentea</li> </ul>	
<b>Irakasleriaren koordinazio maila areagotu</b>	Aurrebaluazioak eta ebaluazioak astearte eta asteazkenetan egin	Beteze maila = %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasketa Burutzatik egindako deialdiak eta aktak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakasleria</li> <li>▪ Ikasketa Burutza</li> </ul>	
	Ikasmilako edo ikastaldeko bilerak burutu eta indartu	Ikastaldeko bi bilera egin gutxienez ikasturtean. Beteze maila = %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikasketa Burutzatik egindako deialdiak eta aktak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakasleria</li> <li>▪ Ikasketa Burutza</li> <li>▪ Tutoreak</li> </ul>	
	Mintegiek, hala behar izanez gero, arratsalderen bat erabili HAUSPOA egitasmoa hobeto koordinatzeko	Mintegi bilera gehiago egin. Honetarako erabiltzen dugun ordu kopurua %25a igo. Beteze maila = %100a	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Mintegi bileretako aktak</li> <li>▪ Mintegi buruen deialdiak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Mintegi buruak</li> <li>▪ Mintegi kideak</li> <li>▪ Ikasketa Burutza</li> </ul>	



**HAUSPOA PROIEKTUA**

**JARDUERAK-PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK-PERTSONA ARDURADUNAK-IKASLE HARTZAILEAK**

JARDUERAK	PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK	PERTSONA ARDURADUNA	IKASLE HARTZAILEAK
<p>Errefortzu eta laguntza jarduerak antolatu EKITATEA eta BIKAINASUNA kontuan hartuta</p> <p>Ikasleei baimendutako eta zaindutako/lagundutako ikasgelak eskaini</p> <p>Ikasleei jarduera osagarriak eskaini <b>HAUSPOA arratsaldeetan</b></p> <p>Ikasleei Guraso Elkarateak edota beste erakunde batek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eskaini</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakasleria guztia</li> <li>▪ Bereziki arlo instrumentaletako irakasleak ( Euskara – Gaztelania eta Matematika)</li> <li>▪ Ikasketa Burutza</li> <li>▪ Proiektuetako arduradunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Proiektuetako arduraduna</li> <li>▪ Ikasketa Burua</li> <li>▪ Zuzendaria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Borondatez datozenak</li> <li>▪ Irakasgairen batean/batzuetan laguntza behar dutenak</li> <li>▪ Irakasgairen batean/batzuetan gehiago ikasi nahi dutenak</li> </ul>

## I.E.S. Elorrio B.H.I.



JARDUERAK	PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK	PERTSONA ARDURADUNA	IKASLE HARTZAILEAK
<p>Gurasoekin aurrez aurreko bilerak bultzatu eta indartu</p> <p>Partekatutako tutoretza egitasmoan irakasle gehiago inplikatu</p> <p>Ikasturte hasieran gurasoei ahalegin honen berri eman eta familia bakoitzari bere seme/alabaren tutorea zein den jakinarazi.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakasleria</li> <li>▪ Tutore guztiak</li> <li>▪ Norbanako tutore guztiak</li> <li>▪ Ikasketa Burua</li> <li>▪ Pertsonalgo ez dozentea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tutoreak</li> <li>▪ Ikasketa Burua</li> <li>▪ Zuzendaria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guztiak</li> <li>▪ Familiak</li> </ul>
<p>Aurrebaluazioak eta ebaluazioak astearte/ostegun (txandakatuz) eta asteazkenetan egin</p> <p>Ikasmilako edo ikastaldeko bilerak burutu eta indartu</p> <p>Mintegiek, hala behar izanez gero, arratsalderen bat erabili</p> <p>HAUSPOA egitasmoa hobeto koordinatzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakasleria guztia</li> <li>▪ Tutoreak</li> <li>▪ Norbanako tutoreak</li> <li>▪ Mintegi buruak</li> <li>▪ Mintegi kideak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Mintegi buruak</li> <li>▪ Ikasgelako tutorea</li> <li>▪ Ikasketa Burua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Guztiak</li> </ul>

## IRAKASTEKO EZ DEN ORDUTEGIAN, NOLA JOKATUKO DUGU

- HAUSPOA proiektuaren oinarritzko markoa

- Astelehenetan, astearteetan eta ostegunetan eskainiko genuke
- Asteazkenak irakasle on prestakuntzarako utziko genituzke
- HAUSPOAren ordutegia
  - 15:15 – 16:30 jarritako egunetan
  - Saioak antolatu arren, ikasle bakoitzak bere HAUSPOA ordutegia antola dezake eskaintzen zaizkion saioetan parte hartu ala ez erabakiz, honetarako, behar izanez gero, arloetako irakasleen eta orientatzailearen aholkua izango du.
  - Saioetan parte hartu ez arren, edozein ikaslek Institutuak eskaintzen dizkion gela eta hornikuntzak erabili ahal izango ditu, bere lanak bukatzeko edota bere **autoikaskuntzarako**.
  - Bai programatzen diren saioetan eta baita eskura jartzen diren geletan beti irakasle edo arduradunen bat izango da.
  - ***Arduradunak GURASOAK ere izan daitezke. Ikasturte hasieran gurasoei laguntza eskaera luzatuko zaie. Prest leudekeen gurasoekin bilera bat egingo genuke euren lana antolatzeko – zer egin, noiz egin, nola egin... -***

- HAUSPOAren barruan, arratsaldeetan hauxe egin daiteke:

- Indartze tailerrak antolatu
- Bibliotekaren erabilera autonomoa bultzatu
- Ikaste gelen erabilera bultzatu: Plastika gela erabili
- Tutoretza partekatua indartu bai ikasleekin eta baita gurasoekin ere
- Tarteka borondatezko ekintzak burutu: hitzaldiak, tailerrak...
- Guraso Elkartearekin batera eskolaz kanpoko ekintzak indartzen saiatu
- Ikasleriaren antolaketa autonomoa bideratzeko guneak eskaini
- Gurasoentzat ikasturte osorako hitzaldi/tailerrak antolatu. Prestakuntza eskaini
- Gurasoentzat eurentzat, antolatu nahi dituzten ekintzetarako Institutuko gela eta hornikuntza eskaini
- ...



• HAUSPOA ARRATSALDEETAKO EGITURAKETA

ASTEKO EGUNAK	HAUSPOA SAIOA	KOORDINAZIO ARDURA
<b>Astelehena</b>	Arratsalde sozio-linguistikoa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskara</li> <li>○ Gizarte</li> <li>○ ...</li> </ul>	Ikasketa Burutza
	Biblioteka (norbanako irakurketa) IKT 1 eta IKT 2 gela Talde lana egiteko gela: Plastika gela – Teknologia gela - ...	Ikasketa Buruak ikasgela bakoitzean izango dena izendatuko du ikasturte hasieran
	Tutoretza partekatua: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaslearekin</li> <li>• Ikaslearen gurasoekin</li> </ul>	Ikasketa Burua Orientatzailea
<b>*Asteartea</b>	Arratsalde zientifiko-teknologikoa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Matematika</li> <li>○ Zientziak</li> <li>○ Teknologia</li> <li>○ ...</li> </ul>	Ikasketa Burutza
	Biblioteka (norbanako irakurketa) IKT 1 eta IKT 2 gela Talde lana egiteko gela: Plastika gela – Teknologia gela - ...	Ikasketa Buruak ikasgela bakoitzean izango dena izendatuko du ikasturte hasieran
	Tutoretza partekatua: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaslearekin</li> <li>• Ikaslearen gurasoekin</li> </ul>	Ikasketa Burua Orientatzailea
<b>*Osteguna</b>	Arratsalde sozio-linguistikoa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Gaztelania</li> <li>○ Ingelesa</li> </ul>	Ikasketa Burutza
	Biblioteka (norbanako irakurketa) IKT 1 eta IKT 2 gela Talde lana egiteko gela: Plastika gela – Teknologia gela - ...	Ikasketa Buruak ikasgela bakoitzean izango dena izendatuko du ikasturte hasieran
	Tutoretza partekatua: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaslearekin</li> <li>• Ikaslearen gurasoekin</li> </ul>	Ikasketa Burua Orientatzailea

\*Astearte/ostegun batzuk ere AURREBALUAZIOAK eta IKASMAILAKO bilerak egiteko erabiliko ditugu. Txandakatuko ditugu asteko egunak beti irakasgai beraiek ez kaltetzeko.

Lauki honetan jarritakoaz gain, Elorrioko Institutuak eta Guraso Elkarteak elkar hartuta, honako beste ekintza hauek ere martxan jarri nahi ditugu Institutuko irakasleekin, gastuak murrizte aldera eta aldi berean dirua arazoa izan ez dadin ikasleen partehartzea bultzatzeko:

- BIDEOGINTZA ETA ANTZERKIGINTZA TAILERRA: Iñigo Sourrouille irakaslearen eskutik
- PLASTIKA ETA SORMEN TAILERRA: Valle Beitia irakaslearen eskutik
- TEKNOLOGIA BERRIAK ( ikasleentzat programa erakargarrien ezagutza eta praktika) Dani Lopez irakaslearen eskutik

## ➤ IRAKASLERIAREN DEDIKAZIO-ORDUAK BERRANTOLATZEKO PROPOSAMENA

Elorrioko Institutuko egoera kontuan hartuta, 2012-2013. ikasturteko alegia, hauxe izan daiteke hurbilketa:

- Aurten 25 irakasle gaude jornada osoan lanean.
- HAUSPOAri gutariko bakoitzak ordu bete emanda = 25 ordu/astero
- Ordu horiek modu honetan banatzen dira:
  - Batzuk ikasleei Hezkuntza Arreta modu zuzenean emanaz: Euskara, Gaztelania, Matematika, Natur Zientziak, Teknologia, Fisika-Kimika, Gizarte, Ingelesa...
  - Beste batzuk leku komunetan egonda eta ikasleei beste modu bateko laguntza emanaz: talde lanetan, hornikuntzaren erabileran...
  - Orduen kalkuluari hurbilduz, zera:
    - HAUSPOA arratsaldeetan 6 saio guztira atera beharko genituzke aurrera
    - 25 irakasle izaten jarraitzen badugu, arratsalde bakoitzean 4 irakasle gutxienez beharko genituzke.
    - Astearte arratsaldean, agian, gehiago beharko genituzke irakasgaiak gehiago direlako.
    - Ohiko antolaketa hauxe izan daiteke:
      - 2-3 irakasle mota bakoitzeko arratsaldea aurrera ateratzeko
      - 2 irakasle leku komunetan laguntza emateko

Jarritako guzti honetaz gain, beste zeregin hauek ere izango dute lekua HAUSPOA arratsaldeetan:

1. Gurasoekin bilerak
2. Orientazio bilerak
3. ...

Gurasoekin egin beharreko prestakuntza saioak edota tailerrak HAUSPOA proiektuaren barruan egon arren, beranduago egin beharrekoak dira gurasoen lan-orduak direla eta. Aipatu saioak GURASO ELKARTEAekin batera bideratzeko ahalegina egingo genuke **GURASO Eskolaren ideia indartuz**. Inguruko erakundeek – udalak, amankomunazgoak, ... - eskaintzen dizkiguten aukerez baliatuko ginarteke eta baita ikastetxeko irakasleriaz ere.

Gurasoentzat plangintza egiterakoan proposatzen dugun asteko eguna eta ordutegia hauxe da:

- Gurasoen hitzaldiak/tailerrak/...ASTEAZKENETAN izango dira
- Asteazkenak hartuko ditugu zeregin hauetarako:
  - Bizikidetza bilerak egiteko
  - OOG-ak ospatzeko
  - Gurasoekin proiektu desberdinen bilerak egiteko: Europear Elkartrukeak. Parisera irteera, Sahara-ra elkartasun bidaiak...
- Bileren hasiera ez da inoiz izango arratsaldeko 17:00ak aurretik
- Gurasoentzat hitzaldiak/tailerrak/...arratsaldeko 18:00etatik 19:30ak arte izango dira

### HAUSPOA: Irakasleriaren partehartzea zertan datza?

- Klaustrokide bakoitzak 1 ordu eskainiko du arratsaldean behar duten ikasleei Hezkuntza Arreta eskaintzeko, bai modu zuzenean eta baita zeharka ere.
- Irakasle bakoitzak 17 ordu eskainiko ditu goiz parteko ordutegian eta irakasle bakoitzak beste 1 ordu eskainiko dio HAUSPOA proiektua. Irakasle guztiok – jornada osoan gaudenok – 18 ordu lektibotan izango gara.
- Guztira, 24 irakasle baldin bagaude eta gutariko bakoitzak ordu bete zeregin honetarako eskeintzen baditu, HAUSPOA proiektuari eskainiko dizkiogun ordu kopurua hauxe da: 24 ordu/astero x 30 aste = 720 ordu
- Astean 23 ordu beteko genituzke: 17 lektibo + 1 ordu Hezkuntza Arreta + Gurasoentzat ordua + Mintegi ordua + Prestakuntza ordua + Zaintza orduak
- Ordutegi honen barruan, gure kasuan eta orain arte egin izan dugun erara, honako zereginak ere sartzen ahaleginduko ginateke:
  - Tutoreek orientatzailearekin astero burutzen dituzten bilerak
  - Proiektu desberdinei eskainitako orduak
  - PROI bilera ordua
  - Ikasgelako Tutoretza ordua. Tutoretza partekatutako ordua ere bai.
  - IKT koordinazio ordua
  - KH koordinazio ordua
  - Ikasketa Burutza eta Orientazio zerbitzuaren arteko koordinazio ordua/ak
  - Zuzendaritza Batzordea egiteko bilera ordua
  - Mintegi bilerak
  - ...

Berrantolaketa honetan irakasleen lan-baldintzak errespetatzen dira eta honela ikasleentzat proposaturiko irakas-jarduera eta irakastekoa ez dena irakasleen oniritziarekin egin da. Marko orokor honen barruan, zuzendaritza-taldeak irakasleen dedikazio-araudia aplikatzerakoan formula berriak erabiltzea eta berauek irakasleriarekin adostea aurreikusten du.

Litekeena da irakasle batzuren dedikazioa HAUSPOA arratsaldeetan beste batzuren baino handiagoa izatea eta 18 ordu baino gehiago eskaintzea proiektuari. Honelako egoera batean zuzendaritza-taldeak ikusiko du irakasle horrekin edota irakasle talde horrekin nola jokatu, beti ere dedikazio-orduetan murrizketarik izan gabe baina ahalegin zor zaion begirunea azalduz.

➤ **Ikasleen eta familien parte-hartzea sustatzeko estrategiak**

Proiektu honen garapenean familien adostasuna eta partehartzea ezinbestekoak izango dira eta hasiera hasieratik oso beharrezkotzat jo da gurasoen inplikazioa lortzea eskolaz kanpoko jardueren eskaintza erakargarria antolatze aldera.

Irakasteko ez diren jardueretan ikasleen parte-hartzea ahal den eta handiena bultzatu nahi dugu, jakinda, aukerakoa dutela parte-hartze hori eta familien esku geratuko dela euren seme/alabek ikastetxeak antolatutako jardueretan parte hartzea edota denbora hori beste zeregin batzuetan ematea.

Guk geure aldetik familien inplikazioa sustatzeko estrategiak martxan jarriko ditugu, esaterako:

1. Ikasturte hasierako Guraso Bileran HAUSPOA proiektuaren berri eman eta HAUSPOA arratsaldeetan parte hartzearen garrantzia azpimarratu.
2. Tutore eta norbanako tutoreen bitartez, arratsalde hauetan egon beharko liratekeen ikasleen zerrenda egin eta euren gurasoei eskaintzaren eta premiaren berri eman.
3. Datozen ikasleekin eta euren familiarekin KONPROMISO IDAZKIA sinatu. Konpromiso honek, ikaslea modu erregularrean ikastetxera etorriko dela bermatuko du.

4. Premia ikusten bada, Ikasketa Burutzatik, hala erabakitzen diren familiekin hitz egingo da, euren seme/alabak irakastordu hauetara etor daitezten.
5. Ikasleei, guztiei, zuzendutako proposamen hau borondatezkoa izanda, bere betebeharrak betetzen ez dituen ikaslea eta denbora pasan edota arazo sortzaile bada, arratsalde hauetatik kanpo geratuko litzateke.
6. Orientazio zerbitzuak ere zeregin honetan zerikusi handia izango du. Familia batzuren egoera integrala ezagutu eta gero, zerbitzu hau izango da HAUSPOA arratsaldeetan ikasleak parte har dezan saiatuko dena.
7. Ikastetxeak, bestalde, bere eskuan dituen tresna digital guztiak erabiliko ditu arratsalde hauetan landuko dena edo egingo dena publikizatzeke. Honetara, web orrialdea eta gainontzeko komunikazio bideak erabiliko ditugu ikasleei jakinarazteko zer, noiz eta non izango den.

Garrantzitsua izango da familien parte hartzea euren seme/alaben erabakian eta garrantzitsua da ere honelako proiektu integral batean Guraso Elkarteak eskainiko dituen Eskolaz Kanpoko jardura andana.

Honela, Elorrioko Irakaskuntza Publikoko Guraso Elkarteak 2013-2014. ikasturterako proposatu dituen ekintzak hauek dira:

HAUSPOA proiektuak, proiektu berritzaile lez, hezkuntza komunitatearen atal desberdinen arteko **lankidetzak** bultzatuta egon behar den aldaketa eskatzen du; hau da, Zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen arteko lankidetzak, **guztion ahalmenak gehituz**.

Hezkuntza komunitate honen helburu nagusia : ELORRIO INSTITUTUko IKASLEEN ESKOLA-ARRAKASTA HOBETZEA da, eta helburu berbera duten desberdinen arteko lankidetzak proposatzen dugu.

## 1. HELBURUAK

- Ikasleen BIKAINASUNA bultzatu, EKITATEA Institutuko irakasleei utzita, haien profesionaltasuna eta ezaguera kontuan harturik.
- Ikastetxeak Hezkuntza Komunitateari eskaini dizkioten hornikuntzari etekina ateratzea, bartzere gelei, ordenagailuei, bideo-audio ekipamenduei...

## 2. ORDUTEGIA ETA GAIAK

- ✓ **15:15 - 16:30: Klaustrakideen egituraketa.**

✓ **16:00 - 17:00: eskolaz kanpoko ekintzak**

Mota	Proposamenak
1.- Hizkuntzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ingelera praktikoa: Speaking/listening (abestiak, albisteak - BBC News..)</li> <li>✓ PET, First Certificaterako prestaketa</li> </ul>
2.- Adierazpen artistikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Breakdance, dantza modernoak, funky...</li> <li>✓ Bideogintza</li> <li>✓ Komikigintza</li> <li>✓ Bertsolaritza</li> </ul>
3.- Tailerrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ebanisteria</li> <li>✓ Mekanografia</li> <li>✓ Web-orrien diseinua eta kudeaketa</li> <li>✓ Robotika, elektronika eta programazioa</li> <li>✓ Autocad- Sketchup</li> <li>✓ Matematika tailerra (Excel, estatistika, grafikoak, sudokuak..)</li> </ul>
4.- Hezkuntza afektiboa	Sexualitatea, hezkuntza emozionala, harremanak, gatazkak ...
5.- Ikasketa-teknikak	<input type="checkbox"/>



### Zehaztasunak:

- Proposamen hau oso asmo handikoa da, eta apurka garatzea komenigarria litzateke; hori dela eta, bat edo bi jarduerekin hasiko ginateke, eta egonkortzen diren neurrian, ekintza berriak eskainiko litzateke.
- Ekintza honek eskaintzeko beharrezkoa izango da ikasle kopuru minimo bat izatea, 15 ikasle ingurukoa.
- Ekintza honetan parte hartzeko IGE-AMPAko bazkidea izan behar da.
- Ordutegia luzatzeko aukera dago interesa eta beharra nabarmentzen bada.
- Institutuko ohiko ikasleengandik (lan-poltsa bat sortuta) eta herriko akademietatik baliatuko gara ahal den neurrian.
- Musika eta kirolak HAUSPOA arratsaldeetatik kanpo geratzen dira, jada antolatuta dagoenez gero (Musika –eskola eta EKT).
- IGE-AMPAk gastu guztiez arduratuko da, hala ere eta IGE-AMPAko baliabide ekonomiko urriengatik, diru laguntzak eskatu beharko dira eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleei kuotak kobratu beharko zaizkie, beti ahalik eta merkeen.

### 3. BALIABIDEEN ERABILERA

IGE-AMPAk proposatutako HAUSPOA arratsaldeetarako beharrezkoak izango dira baliabide hauek:

Ekintza	Gunea	Ekipamendua
✓ Ingelera	Biblioteka	Kainoia
✓ Breakdance, dantza modernoak, funky...	Gimnasioa	Audio ekipoa
✓ Bideogintza	Gela arrunta	Audio-bideo ekipoa
✓ Komikigintza	Plastika gela	Ordenagailuak
✓ Bertsolaritza	Gela arrunta	Audio ekipoa
✓ Ebanisteria	Plastika gela	Ordenagailuak
✓ Mekanografia	Gela arrunta	Ordenagailuak
✓ Web-orrien diseinua eta kudeaketa	Gela arrunta	Ordenagailuak
✓ Robotika, elektronika eta programazioa	Gela arrunta	Ordenagailuak
✓ AutoCAD- Sketchup	Gela arrunta	Ordenagailuak eta programa

✓ Matematika tailerra	Gela arrunta	bereziak Ordenagailuak
✓ Hezkuntza afektiboa	Gela arrunta	



Zehaztasunak:

- Baliabide guztiak ikasleen hezkuntza arrakasta bideratzeko erabiliko dira.
- AutoCAD eta Sketchup emateko programa bereziak beharko dira.
- IGE-AMPA arduraduna izango da.

#### 4. Proiektuaren JARRAIPENA: ADIERAZLEAK

Adierazle neurgarriak, eskuragarriak eta erronka suposatzen duenak ezartzea garrantzitsua da.

Adierazle honek jarraitu eta aztertu behar dira.

Hasieran asteroko segimendua beharko da, behar diren aldaketan sartzeko.

Behin sistema egonkortuta egon, segimendua hilerokoa izatera pasatuko da.

Adierazleak mota desberdinetakoak izango dira:

ADIERAZLEAK	HELBURUA
1.- Ikasleen parte hartzea	80%
2.- Ekintzen puntuazioa (0tik 5era)	4

Puntuazioa hurrengo inkestatik aterako da:

		Balorazioa 0 (min)-5 (max)
3.1.- Helburuak eta edukiak	Zure helburuak betetzen ari dira ekintza honekin	
	Ekintza honen asteroko iraupena nahikoa da	
	Ekintza honen sakontasuna nahikoa da	
3.2.-Metodologia eta giroa	Erabilitako metodologia aproposa da	
	Denok parte hartzen dugu	
	Hezitzaileek materia menderatzen dute eta edukia taldeko beharretara moldatzen dute	
	Hezitzaileak arduratzen dira eta planteatutako zalantzak ebazten dituzte	
	Emandako dokumentazioa egokia da	
	Ingurune-baldintzak (ikasgela, altzariak, baliabideak..) prozesu hezigarria errazteko egokitu	



	dira	
3.3.- Erabilgarritasuna	Emandakoa erabilgarria da niretzat	
	Jasotako heziketak merezi du nota on bat	
3.4.- Komentarioak eta iradokizunak	Ze gaitan gustatuko litzaizuke gehiago sakontzea?	
	Zer helburutarako gustatuko litzaizuke kurtsoa egitea?	
	Beste iradokizun batzuk	

Zehaztasunak:

- HAUSPOA arratsaldetan parte hartzen duten ikasle guztiek, inkesta hau erantzun behar izango dute aste bakoitzeko azken egunean.
- Familien Asetze-gradua analizatzeko beste inkesta bat preparatu beharko da.
- Aldaketa bizkorrak egiteko eta behar berriei aurre egiteko gai izan behar gara.
- IGE-AMPAko pertsona 2 gutxienez arduratu behar dira HAUSPOA proiektua aurrera eramaten.

Elorrión, 2013ko ekainaren 12a

IGE-AMPAko Batzordea

Guzti honen harira, ezin da ahaztu, Eskolaz Kanpoko ekintzen eragileak asko direla eta gure ikasleak beste zeregin batzuetan ere murgiltzen direla arratsalde partean, esaterako:

- Musika Eskolak antolatutako musika klaseetan.
- EKT taldeak antolatutako kirol jarduera desberdinetan.

Atal hau bukatze aldera, zera esan: sor daitezkeen eskolaz kanpoko jardunetan, gure ideia ere bada, IKASLEEI eurei galdetzea zer duten gustoko eta zer antolatzea gustatuko litzaiekeen. Behin hau jakinda, ez dugu baztertzen ere EUREK IZATEA ekintza hauetariko bat/batzuk antolatu eta jarraipena egingo diotenak.

Honela bada, HAUSPOA proiektu honen eskaera egiteko zuzendaritza-taldeak bere konpromisoa eta lidertza jasoaz, sektore guztietako ordezkarien iritzia eta ekarpenak bildu ditu eta proiektuaren informazioa eskola-komunitate osoari eman dio familien, irakasleen, ikasleen eta abarren parte hartze demokratikoa bermatuz.

Elorrioko Institutua proiektuaren etengabeko jarraipena egiteko Berritzeguneko erreferentziako aholkulariarekin batera prest agertzen da eta baita proiektuaren azken ebaluazio-prozesua Ikuskaritzarekin batera egiteko ere.

Aurkezten dugun proiektu honetan, baremoari lotutakoetan, hauxe adierazi nahi dugu:

- ✓ Elorrioko Institutuko Zuzendaritza lau urteko aldirako izendatuta dago.
- ✓ Irakasleriaren parte hartzera proiektu honetan %75etik gorakoa da.
- ✓ Ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuko dituen eskolaz kanpoko jarduerak aurrez zehaztuta geratu dira.
- ✓ Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda, Jarraipen eta Hobekuntza Batzordea sortuko dugu ikastetxean honako pertsonak osatuko dutelarik:
  - Zuzendaria: Josu Etxaburu
  - Proiektuaren irakasle arduraduna: Zorione Fundazuri
  - Ikastetxeko aita/ama: Amaia Oveja
  - Ikastetxeko ikasle bat: Iñigo Gallastegi
  - Ikastetxeko irakasle bat: Eduardo Gaviria
  - Berritzeguneko aholkularia: Iñaki Mentxaka
  - Ikastetxeko ikuskaria: Jone Solabarrieta

Elorrio, 2013ko ekainak 11


## PROIEKTUARI ATXIKITZEN ZAIZKION ERANSKINAK

- + Onarpen aktak:
  - Elorrioko Institutuko KLAUSTROKO akta
  - Elorrioko Institutuko OOGko akta
  - Elorrioko Irakaskuntza Publikoko Guraso Elkartearen akta
- + HAUSPOA proiektuari atxikimendua. IRAKASLERIA
  - Irakasle bakoitzaren atxikimendua eredu berari jarraituz.
- + Beste idazki batzuk:
  - Partekatutako Tutoretza. Nahiak. Duela urte batzuk idatzitako hausnarketa
  - Gurasoei bidalitako eskutitza
  - Ikasle/familiaren konpromiso idazkia HAUSPOA arratsaldeekiko
  - Mintegiek HAUSPOA dela eta, hausnartzen ar idirena. Zirriborroa

## HASTAPENAK: 2010ean egindakoa urreneko hausnarketa

### IKASLEZ IKASLEKO TUTORETZA - Proposamena -

- HELBURUA:** Orain arte dugun tutoretza-egitura indartu eta bai ikasle bakoitzari eta baita familiari ere eskaini diezaiokegun arreta pertsonalizatua hobetu
- PROPOSAMENAREN AURREKARI BATZUK:**
  - Tutore eta tutorizatua den ikaslearen arteko lotura sendotu nahia
  - Tutore lana, adin hauetan oraindik, guztion lana da
  - Norbanako tutoretzaren inguruan egin ditugun saiakerak finkatzeak ekar diezagukeen onura
- EGITASMOAREN NONDIK NORAKOAK:**
  - Ikaslez ikasleko tutoretza sarea indartzeko, hauxe da proposatzen dena



- ✓ Egitura honi jarraituta, planteiatzen den birmoldaketak honako hauek hartu beharko lituzke kontuan:
  - a. Martxan jarri nahi dugun ikastalde bakoitzean ohiko taldeko-tutoreaz gain beste 2 beharko genituzke.
  - b. Egokiena maila bateko bi taldeetan abian jartzea litzateke, honela, 4 irakasleren artean, gutxienez, ikaslez ikasleko tutoretza banatuz
  - c. Modu desberdinetan egin daitekeen arren, hasiera batean proposatzen dugun moldean talde honetan klasea ematen dien ikasleria izatea da.
  - d. Curriculumaren barruan dagoen tutoretza ordua **IKASGELAKO TUTOREAREN** esku legoke.

### LABURBILDUZ:

- ✓ Modu esperimentalean DBH 4 mailan, 2010-2011.ikasturtean, martxan jartzea proposatzen dugu borondatez proiektu honi atxikitzen diren irakasleen laguntzarekin
- ✓ Ohiko tutoreez gain beste 2 edo 3 irakasle gehiago beharko genituzke, zenbat eta gehiago izanda ikasle kopurua gutxituko litzatekelarik
- ✓ Gutxienezko helburua zera litzateke: gela bakoitzak 2 tutore izatea.
- ✓ Nahi hau aurrera eramateko, nahiz eta beherago agertzen den prestakuntza orduaren birmoldaketa proposamena, **TALDEKO IRAKASLEEN JARRAIPIEN BILERAK** indartzea ezinbestekoa deritzogu.
- ✓ Egitasmo hau indarrean jartzeak **NORBANAKO TUTOREAREN** figura sortzea dakar.
- ✓ Norbanako tutoreak elkartu eta koordinatzeko gune berria sortuko genuke: asteazkenetan 14:00etatik 15:00etara
- ✓ Proposamen hau begi onez ikusiko bagenu, gauza bera egin daitekela uste dugu DBH 1 mailan daudenekin.

### PRESTAKUNTZA ORDUEN BIRMOLDAKETA (Proposamena)

- Orain arte, azken ikasturteetan, 15ero eta bakoitzean 2 ordutako lan-saioak eginez burutu ditugu.

- Legediak hala jarrita, astero ordu bete prestakuntzari lotua egon behar da. Ikasturte osoan 37 aste = 37 ordu
- Gure ohitura hauxe izan da: 15 saio X 2 ordu/saioko = 30 ordutako prestakuntza ikastetxean, "Formación en centro" deritzaiona.

□ **PROPOSAMENA:**

- 6 saio gorde guztiok elkarrekin landu eta ikasi beharrekoentzat:
  - Geuk geure buruari eskainitakoak: IKTak...
  - Kanpotik ekarritakoa – Berritzeguneak, adituak... -: kompetentziak eta programazioak, adimen emozionala, lan kooperatiboa, literatur tertuliak...
- 9 saio = 18 ordu beste modu eta zeregin hauetan eman:
  - Asteazkenetan 14:00etatik 15:00etara
    - Taldeetako irakasleonek bilerak (JARRAIPIEN BILERAK) hala adostutako asteazkenetan. Honela bana daitezke:
      - 1A – 3A
      - 1B – 3B
      - 2A – 4A
      - 2B – 4B – 4D
    - Ikasturtean zehar 3 aldiz burutuko genituzke jarraipen bilera hauek ( 12 ordu guztira)
    - Norbanako tutoreentzat gunea ere ordutegia bera izango litzateke (14:00-15:00) eta ebaluaketarako gutxienez 2 aldiz elkartuko lirateke (6 ordu)
    - Norbanako tutore honek berak tutorizatuta dituen ikasleekin banan-banako elkarrizketak eta laguntzak bideratzeko aukera desberdinak egon daitezke ikaslearen eta irakaslearen ordu-aurkeren arabera:
      - 14:00-15:00
      - Bazkal aurreko nahiz osteko tartekak
      - Jolastorduek
      - Arratsaldeko orduren bat
      - Again, norbanako tutore horrek, langintza honetarako izan dezakeen ordua

- Norbanako tutoreak ez direnek 6 ordu izango lituzkete, besteak beste zeregin hauetarako:
  - Mintegiarekin lotutako lanak bideratzeko
  - Proiektu desberdinen koordinazioa eta egikaritza aurrera eramateko
  - Batzorde berezien bilerak egiteko: Bizikidetzaren behatokia...
- Guzti honetaz gain eta prestakuntza eta Hezkuntza Berriztatzeko deialdiarekin bat eginez, irakasleriarentzat, aukerako prestakuntza-saioak ere eskaintzea aurreikus daiteke, norbanako edota talde txikien eskaerei erantzunez.

Hauxe beraz, **IKASLEZ IKASLEKO TUTORETZA** edo **NORBANAKO TUTORETZA** bultzatzeko nahiaren inguruan eta guztion hausnarketarako idatzitakoa. Azter dezagun mintegietan proposamena eta **EKAINAREN 14rako ea guztion iritziak jaso eta gero, azken dokumentua adosten dugun.**

Ahaleginagatik, eskerrik asko.

Elorrio, 2010eko maiatzak 31

## I.E.S. Elorrio B.H.I.

Elorrio, 2012ko irailak 25

Guraso agurgarria,

Elorrioko Institutuak bai ikasleei eta baita familiei ere eskaini dizuegun arreta hobetu nahian martxan jarri zuen duela bi ikasturte **PARTEKATUTAKO TUTORETZA** izeneko proiektu berri bat.

Egitasmo honen helburu nagusia TUTORETZA lana gure ikastetxean irakasle garen guztion zeregintzat hartzea da eta modu honetara orain arte izan ditugun tutoretza-moldeak hobetzea.

Proiektuak bere bidea darrai eta proiektu guztietan bezala egiteko modu batzuetan asmatzen dugu eta beste batzuetan egindako hutsek hurrengoan hobetzen laguntzen digute. Gaur egun irakasle ia guztiok gara proiektu honetan parte eta ziur nago datozen ikasturtetan finkatzen joango dela egiteko modu berritzaile hau.

**PARTEKATUTAKO TUTORETZA**rekin ikasle guztiengana iritsi nahi dugu, jakinda ikasleak ere, geu bezala anitzak direla eta guzti-guztiek merezi dutela gure arreta; honela bada ikasle bakoitzak bere tutorea izango du eta batzuentzat gelako tutorea izango da eta beste batzuentzat ikastetxeko beste irakasle bat zeinak berari ere klasea ematen dion.

Esan moduan, helburu bakar hori lortu nahian, 2012-2013. ikasturteari begira honako informazio haue helarazi nahi dizut, familia gisa jakitun egon zaitezten eta tutorearekin zein ikastetxearekin harreman eraginkorrak lehen unetik sor ditzazuen.

Proiektu berri honetan, besteetan bezala, zuen laguntza eta begirunea izango dugula jakinda, gure esker ona adierazi nahi dizuet.

Josu Etxaburu  
Elorrioko Institutuko zuzendaria

<b>IKASLEA</b> ALUMNO/A	
<b>TALDEA</b> GRUPO	
<b>TUTOREA</b> TUTOR/A	
<b>GURASO ORDUA</b> HORA PARA LAS FAMILIA	

Elorrio, 25 de setiembre de 2012

Estimada familia:

El Instituto de Elorrio en su afán de mejorar la atención ofrecida tanto al alumnado como a las familias que habéis depositado vuestra confianza en el mismo, puso en marcha hace ya dos cursos escolares el proyecto denominado **TUTORÍA COMPARTIDA**.

El objetivo primordial de este proyecto es el mejorar el **proceso de TUTORÍA** ofrecido hasta ahora haciendo que este quehacer en vez de recaer únicamente en el tutor de cada curso, pase a ser una labor en la que todo el profesorado de este Instituto tome parte de manera activa.

Como todo proyecto que sigue su curso los errores cometidos en el transcurso del mismo nos ayudan a crecer y a definir mejor el mismo, mientras que las acciones exitosas pasan directamente a ser un activo de la **TUTORÍA COMPARTIDA**.

Con la **TUTORÍA COMPARTIDA** queremos llegar a cada uno de nuestros alumnos/as, sabedores como vosotros, que cada uno/a de ellos es único y distinto y que todos/as merecen de nosotros la máxima atención. Habrá alumnos/as cuyo tutor sea el tutor/a de aula y habrá otros cuyo tutor/a será algún otro profesor que asimismo le de clase.

Con este objetivo como horizonte, quiero haceros llegar esta información personal para que cuando lo creáis oportuno comenceis a crear una relación eficaz con el tutor/a y por extensión con el Instituto de Elorrio.

Por la ayuda que nos brindáis en general y por vuestra implicación en este en particular, os hago llegar mi más sincero agradecimiento.





## MINTEGIEN HASIERAKO HAUSNARKETA EKINTZEN MAILAKATZEA ETA HELBURUAK ZIRRIBORROA

### ZIENTZIEN MINTEGIA

IkasTeknikak aipatzen dugunean, institutuan orain dela urte batzuk mailakatuta daudenetaz ari gara.

Bai ikas-teknika baita irakurketa ere Zientzien inguruan landuko dira.

Talde elkareragileen funtzionamenduari buruz, Zorioneri (funtsean lan-kooperatibo edo modukoa da)

#### 1. maila : Ikasteknikak

Irakurketa

Guztiok parte har dezakete, baina maila egokituta izango dira (eta norberari eskeiniko dio komeni zaiona)

#### 2. maila : Ikasteknikak <sup>\*(1)</sup>

Laborategiko hastapena. <sup>\*(2)</sup>

<sup>\*(1)</sup> Guztiok parte har dezakete, baina maila egokituta izango dira (eta norberari eskeiniko dio komeni zaiona)

<sup>\*(2)</sup> Talde txikiak izango direnez, lehenasuna emango die arazo akademiko edota disziplinakoak eduki ez duteztenei

#### 3. maila : Ikasteknikak <sup>\*(1)</sup>

Talde elkareragileka. Sakontzeko lanak/ariketak. <sup>\*(2)</sup>

<sup>\*(1)</sup> <sup>\*(2)</sup> Guztiok parte har dezakete, baina maila egokituta izango da (eta norberari eskeiniko zaio komeni zaiona)

#### 4. maila : Bio Geo

Ikasteknikak <sup>\*(1)</sup>

Talde elkareragileka. Sakontzeko lanak/ariketak. <sup>\*(2)</sup>

<sup>\*(1)</sup> <sup>\*(2)</sup> Guztiok parte har dezakete, baina maila egokituta izango da (eta norberari eskeiniko zaio komeni zaiona)

Fis Kim

Problemen ebazpena <sup>\*(1)</sup>

Lan praktikoak. Sakontzeko lanak/ariketak. <sup>\*(2)</sup>

<sup>\*(1)</sup> <sup>\*(2)</sup> Guztiok parte har dezakete, baina maila egokituta izango da (eta norberari eskeiniko zaio komeni zaiona)

## BESTE MINTEGI BATZUK

1. HAUSPOA proiektuari begira lerro nagusiak zeintzuk izan behar diren adosteko Mintegietan egindako hausnarketan oinarrituko gara. Orain arte, Mintegietan egin den hausnarketa hau izan da:

§ AH:

- o bi ikasle talderentzat planteatzen da:

§ ondo dabilentzat, hauekin lektorea egon daiteke :

- Pelikulak eta dokumentalak ikusi
- Azterketa ofizialak egiteko prestatu
- Programa informatiko bat erabiliz bakarka lana egin ( 9€ ikasle bakoitzeko)

§ behar dutenentzat:

- oinarritzko ezagutzak
- bi mailetan lana egitea ,1. eta 2. Mailakoak alde batetik eta 3. eta 4. Mailakoak bestetik;

§ EL/GL Bi erantzun mota ematea gaitasun orokorrak landu eta gelan arazoak dutenei laguntza ematea komentatu dute, baina saila iruditzen zaie.

§ MAT. Ataletako gutxiengoak lantzea planteatzen dute, gelako martxa arrunta jarraitzeko laguntza.

Mintegien lanari buruz esan, mintegiek lanean jarraitzen dutela aurreneko zirriborro hau hobeto aztertuz eta idatzitakoaz gain beste aukera batzuk egon daitezkeen hausnartzen.

HAUSPOA proiektua aurkezteko epea iritsi denez, hauxe da Elorrioko Institutuak egiten duen proposamena.

Adeitasunez  
Elorrio, 2013ko ekainak 11